



Docentiaz

DOCENTIAZ

**IRAKASLEEN IRAKASKUNTZA
JARDUERAREN EBALUAZIO
PROGRAMA**

DOCENTIAZ B9 programan parte hartu duten irakasleek programaren garapenaz duten iritzian oinarritutako txostena

2019 Azaroa

AURKIBIDEA

Orria

1.	Sarrera	4
2.	Galdetegia erantzun duten irakasleek	6
3.	Informazioaren analisisa	7
4.	Ondorioak	8
5.	Emaitza multzoaren portzentaje banaketa	9

ERANSKINA

Eranskina: Lortutako erantzunak	10
---------------------------------	----

SARRERA

DOCENTIAZ, UPV/EHUko irakasleen irakaskuntza-jarduera ebaluatzeko gaur egungo eredua, ANECAk 2007an, ebaluazio-agentzia autonomikoekin koordinatuta, abian jarritako Unibertsitateko irakasleen irakaskuntza-jarduera ebaluatzeko laguntza-programan (DOCENTIA) oinarritua, ANECA/UNIBASQ-ek egiaztatu du, 2019ko urtarrilaren 18an.

DOCENTIAZ programa honek (IKD) irakaskuntza-ikaskuntza kooperatibo eta dinamikoaren eredua du oinarri, ikaslea erdigune eta ardatz delarik, eredu hori berezkoa, kooperatiboa, eleaniztuna eta inklusiboa da, ikasleak beren ikaskuntzaren jabe izatea eta jasotzen duten ikaskuntza eta modu integral, malgu eta gizartearen beharretara egokitua izatea azpimarratuz.

Bederatzigarren deialdi honek borondatezkoa izaten jarraitzen du eta, aurreko deialdietan bezala, deialdiaren irekiera (IEZ) Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzuak argitara eman zuen, Gobernu Kontseiluak onartu ondoren, zerbitzuaren webgunean bederatzigarren deialdi honen oinarriak argitaratuz. Halaber, dekanoei, ikastetxeko zuzendariei eta Gobernu Kontseiluari jakinarazi zitzaion.

Deialdiaren argitalpena 2019ko urtarrilaren 31an izan zen, eta DOCENTIAZ programan parte hartzeko eskariak aurkezteko epea 2019ko otsailaren 1tik 28ra izan zen, biak barne.

Autotxostena, funtsezko oinarri dokumentala ebaluatzeko DOCENTIAZ programan, ebaluazio hezigarriaren zerbitzuan tresna baliagarria da, eta bere azken helburua hausnarketa sustatzea da, irakasleen lana zailtzen duten irakaskuntzako alderdiak hautemateko.

Autotxostena ondorengo dimentsioetan dago egituratuta:

- 0. DIMENTSIOA: Irakaskuntza zama eta haren bost faktore zuzentzaileak: talde bakoitzeko ikasle kopurua, eskolak zenbat ikastegitan ematen diren, euskaraz edo ingelesez ematen diren eskolak, irakasgai kopurua eta irakasle berria izatea (ez iraunkorra).
- 1. DIMENTSIOA: Irakasteko eta ikasteko prozesuaren Plangintza eta Garapena.
- 2. DIMENTSIOA: Emaitzak (Arrakasta tasak eta irakasleen irakas-jardueraz ikasleek duten iritziari buruzko inkestak).
- 3. DIMENTSIOA: Irakasleen garapen profesionala: Irakats lidergoa., Zuzendutako edo gainbegiratutako lan akademikoak, Prestakuntza (jasotakoa eta emandakoa), Irakaskuntzarekin lotutako berrikuntza eta argitalpenak Goi Hezkuntzan, eta Hedapena.

Irakasleei eskatutako datu gehienak automatikoki deskargatzen dira aplikazio informatikora erakundearen datu-baseetatik: 0. dimentsioari dagozkion datuak, arrakasta tasak, irakasleek eskainitako irakaskuntzari buruzko ikasleen iritzi inkestako emaitzak, zuzendutako edo gainbegiratutako lanak, eta, baldin eta UPV/EHUko datu basean jasota badaude, emandako edo jasotako ikastaroak edo mintegiak, irakaskuntza berrikuntzarako proiektuetan izandako parte-hartzea, etab.

Txosten honetan jaso da DOCENTIAZ programan borondatez parte hartu duten irakasleen iritzia, programa honen bederatzigarren deialdian. Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzuak (IEZ) galdetegi bat igorri zuen uztailaren zehar, hau betetzeko epea uztailaren 30an amaitzen zena. Irakasleek telematikoki erantzun zuten eta modu anonimoan "encuestafácil" plataformaren bidez. Esan behar da galdetegia bidali zela Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitateko Batzordeak (IEUB) ebaluazioaren inguruan egindako azken txostena jaso ondoren.

Galdera sortak Likert erako neurketa eskala bat du, atal irekiekin eta lau bloke tematikotan banatzen diren 12 galderak ditu:

- 1) Testuingurua zehazteko itaunak (1-2 galderak).
- 2) DOCENTIAZ programaren funtsezko edukiari buruzko itaunak (3-7 galderak).
- 3) DOCENTIAZ programara aurkezteko norberaren motibazioari buruzko itaunak (8-9 galderak).
- 4) Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzuaren (SED/IEZ) funtzionamenduari buruzko galdera (SED/IEZ) (10. galdera).
- 5) Bederatzigarren deialdi honekiko asebetetze orokorrari buruzko itaunak (11 galdera).
- 6) DOCENTIAZ programaren balioespen orokorrari eta bere garapenari buruzko galdera irekia (12. galdera).

GALDETEGIA ERANTZUN DUTEN IRAKASLEAK


Guztira 317 irakasleri egin zitzairen galdera-sorta betetzeko gonbita; horietatik 145k bete zuten, hau da, populazioaren %51,86k erantzun zieten galderei.

1.taulak, 1. irudiarekin batera galdetegiaren 1 eta 2. galderei dagozkien emaitzak biltzen dituzte hurrenez hurren. Lehenengoan, bederatzigarren deialdi honetan UPV/EHUko ikastegi bakoitzean parte hartu zutenen lortutako erantzun kopurua ikus daiteke; bigarreanean, ordea, irakasleei dagokien jakintza arloaren araberrako erantzun kopurua.

1.taula. Ikastegien araberrako emaitzak

Arkitektura Goi Eskola Teknikoa	6	%4
Arte Ederren Fakultatea	7	%5
Bilboko Hezkuntza Fakultatea	4	%3
Bilboko Ingeniaritza Eskola	23	%16
Ekonomia eta Enpresa Fakultatea	17	%12
Farmazia Fakultatea	7	%5
Gasteizko Ingeniaritza Eskola	7	%5
Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola	5	%3
Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	9	%6
Hezkuntza eta Kirol Fakultatea	3	%2
Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea	2	%1
Informatika Fakultatea	3	%2
Kimika Fakultatea	6	%4
Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea	2	%1
Letren Fakultatea	16	%11
Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea	9	%6
Psikologia Fakultatea	7	%5
Zientzia eta Teknologia Fakultatea	9	%6
Zuzenbide Fakultatea	3	%2
Jasotako erantzunak	145	%100

1. Irudia. Jakintza arloen araberrako emaitzak



INFORMAZIOAREN ANALISIA

Parte-hartzearen baloreak (aurreko tabla eta irudia) eta jasotako iritziaren emaitzak (jarraitzen duten lerroetan aipamen laburra) positibotzak har daitezke, orokorrean, aurreko deialdien emaitzetatik hurbil gogobetasuraren maila izanik

Emaitzen analisiari helduta, DOCENTIAZ programa honela ikusten dute bederatzigarren deialdi honetako irakasleek:

- Hezigarria (%73 dago gutxi gorabehera, nahiko edo erabat ados)
- Beharrezkoa (%80 dago gutxi gorabehera, nahiko edo erabat ados)
- Egokia (%84 dago gutxi gorabehera, nahiko edo erabat ados)

Ebaluaziorako protokoloari oso lagungarri deritzote autotxostena egiteko orduan, baita programa gardentzat kalifikatze aldera oinarria ere.

Irakasleek zortzigarren deialdi honetan borondatez parte hartzeko izan dituzten arrazoiez hitz eginez, honako hauek lirarteke:

- %65k uste du DOCENTIAZ programak balio duela irakaskuntza jardueran hobetu beharreko alderdiak detektatzeko.
- %86k uste du eginbeharretako bat dela irakaslan ebaluatzea, ikerketa ebaluatzen zaion bezala.
- %80k uste du balioko duela bere irakaslanaren aitortzea lortzeko.
- %81k azpimarratzen du ikastegi, saile edo beste unibertsitateko erakunde batzuen onerako egin dutela (ikastegiko kalitate erakuslea, dekanotzaren proposamena, eta abar)
- %86k azpimarratzen du irakasleen akreditazioaren prozesuetan daukadan ondorioa, oposaketetan, lan poltsetan, ANECA, UNIBASQ, JAP deialdietan, aparteko ordainsari osagarriak eta abar.

DOCENTIAZ programan parte hartzeko beste arrazoi batzuk dira:

- Irakasleei beren jarduera egungo errealitatearen arabera ebaluatzeko aukera ematen dien adierazle objektiboak ematen dizkien tresna pertsonal gisa ikusten da.
- Ebaluaziorako hautatutako ikasgaia ematean egiten den planteamenduaren kalifikazioa izatea.
- Aplikatutako alderdien kanpo-berrikuspenera lortzea, kenkari pertsonaletan oinarrituta.
- Lortutako balorazioa hobetzea, aurreko deialdian jasotako gomendioak aplikatu ondoren.

Irakaslan ebaluatzeko Zerbitzuaren balorazioari dagokionez, jasotako erantzunen %94 k adierazi zuen IEZak emandako atentzioari buruzko gogobetetze indize handia.

Azkenik, nabarmentzekoa da irakasleen %81 asebetarik dagoela DOCENTIAZ programaren bederatzigarren deialdian parte hartu izanagatik (gutxi gorabehera ados: %15 nahiko ados: %27 eta erabat ados: %38).

ONDORIOAK

UPV/EHUko Docentiaz programa pixkanaka ezarri da zortzi deialdi esperimentaletan zehar, eta 9. deialdi honetan UNIBASQ/ANECaK programa ziurtatu du, erreferentziazko programa bilakatu da UPV/EHUko irakasleentzat, irakaskuntza lana ebaluatzeko erreminta gisa, ikasleak gune eta ardatz dituen ikaskuntza-irakaskuntzarako eredu kooperatibo eta dinamikoa oinarri hartuta..

Bere aldetik, bederatzigarren deialdi honetan parte hartu duten irakasleei aplikatutako inkestak honako datu hauek eman ditu: gehiengo bat asebeterik dago parte hartu izanagatik, irakasleek DOCENTIAZ programa hezigarri, beharrezko eta egokia dela pentsatzen dute. Ados agertzen dira, era berean, hiru informazio iturri erabiltzearekin: irakasleak, ikasleak eta ikastegietako kalitate batzordeak.

Zortzigarren deialdi honetan, ebaluazio protokoloak izugarri lagundu du autotxostena betetzeko eginkizunean, programaren adierazle bakoitzari emandako puntuazioak aldeztatik jakinda, halere hurrengo deialdietan areago lan egingo da protokoloaren edukia hobetze aldera.


Irakasleek programa honetan borondatez parte hartzeko dituzten arrazoiek norberaren aitortza, irakaskuntza hobetzea eta beren irakaslanaren ebaluazioaren jarraipenean interesa dute helburu.

Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzuak emandako arreta positiboki oso baloratzen da.

Docentiaz programan parte hartzearekin asebetetzea hautematen da, eta ikusten da Docentiaz, ebaluazio-programa gisa, beharrezkotzat jotzen dela unibertsitate-ikasleen irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuan etengabeko hobekuntza lortu nahi duen erakunde-sarean.

EMAITZA MULTZOAREN PORTZENTAJE BANAKETA

Barra grafiko honek galdera bakoitzarekin bildutako erantzun-multzoaren portzentaje banaketa hartzen du:




Eranskina: LORTUTAKO ERANTZUNAK

Galdera bakoitzeko grafiko bat dago; bertan, eskalako balio bakoitzeko erantzun kopurua ikus daiteke. Horrez gain, batezbestekoa, konfiantza tartea, laginaren tamaina eta, amaitzeko, desbiderapen tipikoa eta errore estandarra daude irudikatuta. "Ondorio nagusiak" atalean, aukeratutako erantzunen portzentajeak ikus daitezke.

Horrez gain, atal irekia duten galderetan, bildutako erantzun multzoaren laburpen bat agertzen da. Adierazpen bakoitzaren ondoan horren agerpen maiztasuna dago adierazita, parentesi artean. Azterketa kualitatiboan eta ondorengo kategorizazioan, gutxienez bi aldiz agertzen diren iritziak hartu ditugu kontuan.

3. itema.- DOCENTIAZ programa:



Analisis teknikoao - Populazioa:

132

Hezigarria da, irakasleentzat gidari izan baitaiteke irakaslana ondo egiteko		Ondorio nagusiak
Batezbestekoa	3	"%56" k aukeratu zituen:
Konfiantza tartea (% 95)	[3 - 3]	Nahiko ados nago
Laginaren tamaina	132	Gutxi gorabehera ados nago
Desbiderapen tipikoa	1	Gutxien aukeratutako erantzuna "%11":
Errore estandarra	0	Ez nago batere ados
Beharrezkoa da, irakaslanari garrantzia ematen baitio		Ondorio nagusiak
Batezbestekoa	4	"%58" ek aukeratu zituen:
Konfiantza tartea (% 95)	[3 - 4]	Nahiko ados nago
Laginaren tamaina	132	Gutxi gorabehera ados nago
Desbiderapen tipikoa	1	Gutxien aukeratutako erantzuna "%7":
Errore estandarra	0	Ez nago batere ados
Egokia da akreditazio akademikarako		Ondorio nagusiak
Batezbestekoa	3	"%61" ek aukeratu zituen:
Konfiantza tartea (% 95)	[3 - 4]	Nahiko ados nago
Laginaren tamaina	132	Erabat ados nago
Desbiderapen tipikoa	1	Gutxien aukeratutako erantzuna "%6":
Errore estandarra	0	Ez nago batere ados

4. itema.- Adierazi autotxostena egitean izan duzun zailtasun bat:


Item honi dagozkion erantzunak tratatzeko, saiatu da kategorizazioa egiten jasotako erantzunen (118) edukiaren antzekotasunean arreta jarrita, erantzunik adierazgarrienak berresanez eta kopuru osoa kuantifikatuz beltzez nabarmendutako edukiari dagokionez, kategoriaren izenburu orokor gisa.

- **Aplikazio informatikoa (17):** Merezimenduak sartzea. Plataformara konektatu gabeko aldi baterako geldialdiak.
- **Dokumentazioaren pilaketa (11).**
- **Denbora (9):** Denbora asko darama. Neurritz kanpoko zeregina. Datak bat etortzea eskola-aldiarekin.
- **Méritos (8):** Irakaskuntza-merezimenduak kategoría egokietan sailkatzeko zailtasuna.
- **DOCENTIAZ programaren ulermen orokorra (5):** Formatua, erabilitako terminologia.
- **Programaren ezjakintasuna (3):** Ebaluazio-irizpideen, gaitasunen eta ikaskuntzaren emaitzen definizio eskasa. Protokoloaren luzera, apartatu bakoitzaren pisua jakitea zailtzen duena. Dimentsio desberdinen espezifikotasun-maila handia.
- **Ikasleen gida (3):** Ikasleen gida egokitzea, alderdi guztiak doitzeko. Konpetentziak ikasgaiaren arloekin bateratzea Ikaslearen gidak betekizun gehiegi ditu.
- **Ikaskuntza lana (2):** 1.2 azpidimentsioan eskatzen dena argitzea. Irakasgaiaren zeregin guztiak erlazionatuta daude; beraz, zaila da bat bakarrik justifikatzea ikasgaiaren diseinu orokorrarekin duen lotura azaldu gabe.
- **Beste batzuk (16):** Adibideak falta dira. Irakaskuntza-metodologiaren ezarpena. Irakaskuntzaren kalitatearen adierazle gisa garrantzitsutzat jotzen diren alderdiekiko desadostasuna. Subjektibotasun posiblea irakasgai egokia aukeratzea.
- **Ez da egon zailtasunik (43).**

5. itema.- Adierazi zenbat denbora eman dituzun autotxostena egiten (ordutan):


<ul style="list-style-type: none"> ✓ Ordu 1 (1) ✓ 3 ordu (13) ✓ 5 ordu (34) ✓ 7 ordu (83) 	Batezbestekoa: 4 ordu
---	------------------------------

6. itema - Ebaluaziorako protokoloa lagungarria izan da autotxostena egiteko:




Analisia teknikoa		Ondorio nagusiak
Batezbestekoa	4	"%64" k aukertu zituen:
Konfiantza tartea (% 95)	[3 - 4]	Nahiko ados nago
Laginaren tamaina	131	Gutxi gorabehera ados nago
Desbiderapen tipikoa	1	Gutxien aukeratutako aukera adierazten du "%8":
Errore estandarra	0	Ez nago batere ados

7. itema.- Protokoloan emandako informazioagatik, programaren ebaluazioa gardena da:



Azterketa teknikoa		Ondorio nagusiak
Batezbestekoa	3	"%68" k aukeratu zituen:
Konfiantza tartea (% 95)	[3 - 4]	Nahiko ados nago
Laginaren tamaina	130	Gutxi gorabehera ados nago
Desbiderapen tipikoa	1	Gutxien aukerututako aukera adierazten du "%8":
Error estandar	0	Ez nago batere ados

8. itema.- DOCENTIAZ programan parte hartu dut, zeren:



Analisia teknikoa - Populazioa:

130

Uste baitut lagundu egingo didala ikusten zer hobetu dezakedan nire irakasle lanean		Ondorio nagusiak
Batezbestekoa	3	"%54" k aukeratu zituen:
Konfiantza tartea (% 95)	[3 - 3]	Nahiko ados nago
Laginaren tamaina	130	Erabat ados nago
Desbiderapen tipikoa	1	Gutxien aukeratutako aukera "%12":
Errore estandarra	0	Ez nago batere ados

Uste baitut nire eginbeharretako bat dela irakaslan ebaluatzea, ikerketa ebaluatzen zaidan bezala		Ondorio nagusiak
Batezbestekoa	4	"%70" k aukeratu zituen:
Konfiantza tartea (% 95)	[4 - 4]	Nahiko ados nago
Laginaren tamaina	130	Erabat ados nago
Desbiderapen tipikoa	1	Gutxien aukeratutako aukera "%6":
Errore estandarra	0	Ez nago batere ados

Uste baitut balioko duela nire irakaslan aintzat hartzeko		Ondorio nagusiak
Batezbestekoa	4	"%65" k aukeratu zituen:
Konfiantza tartea (% 95)	[3 - 4]	Nahiko ados nago
Laginaren tamaina	130	Erabat ados nago
Desbiderapen tipikoa	1	Gutxien aukeratutako aukera "%9":
Errore estandarra	0	Ez nago batere ados


Ikastegi, sail eta beste unibertsitate-erakundeen onerako (ikastegiko kalitatearen adierazlea, dekanotzaren proposamena, etab.)		Ondorio nagusiak
Batezbestekoa	4	"%62" k aukeratu zituen:
Konfiantza tartea (% 95)	[3 - 4]	Nahiko ados nago
Laginaren tamaina	130	Erabat ados nago
Desbiderapen tipikoa	1	Gutxien aukeratutako aukera "%9":
Errore estandarra	0	Ez nago ados

Irakaslearen akreditazio prozesuetan eragina, oposizioak, lan-poltsak, ANECA, UNIBASQ, JAP, EUSKOTRAMOAK, etab.)		Ondorio nagusiak
Batezbestekoa	4	"%74" k aukeratu zituen:
Konfiantza tartea (% 95)	[4 - 4]	Nahiko ados nago
Laginaren tamaina	130	Erabat ados nago
Desbiderapen tipikoa	1	Gutxien aukeratutako aukera "%6":
Errore estandarra	0	Ez nago ados

9. itema.- Adierazi izan duzun beste arrazoiren bat DOCENTIAZ programan parte hartzeko:


- Etengabeko hobekuntza bilatzea, curriculuma hobetzea, metodologia aktiboan sakontzea (26).
- HBP, GAITUZ, DOITU parte hartzeko aurretiko betekizuna (12).
- Docentiaz programan lortutako lehen ziurtagiriarekin hasitako ibilbidearekin jarraitzea 2. aldia da (8).
- Ebaluazio-prozesuaren alderdi garrantzitsuenak ezagutzea (3).

10. itema.- Irakaslana Ebaluatzeko Zerbitzuko (IEZ) langileek behar bezala erantzun diete egindako galderai:



Azterketa teknikoa		Ondorio nagusiak
Batezbestekoa	4	"%78" k aukertau zituen:
Konfiantza tartea (% 95)	[4 - 4]	Nahiko ados nago
Laginaren tamaina	130	Erabat ados nago
Desbiderapen tipikoa	1	Gutxien aukeratutako aukera "%2":
Errore estandarra	0	Ez nago batere ados

11. itema.- Pozik nago DOCENTIAZ programaren bederatzigarren deialdian parte hartu dudalako:



Azterketa teknikoa		Ondorio nagusiak
Batezbestekoa	4	"%65"ek aukeratu zituen:
Konfiantza tartea (% 95)	[4 - 4]	Nahiko ados nago
Laginaren tamaina	130	Erabat ados nago
Desbiderapen tipikoa	1	Gutxien aukeratuta aukera "%9":
Errore estandarra	0	Ez nago ados

12. itema.- Programari edo bederatzigarren deialdi esperimental honi buruzko iruzkinik egin nahi baduzu, idatzi beheko laukian

Jarraian, ítem honi erantzunak aurkezten dira, beren edukiaren antzekotasunari begira:

Programa orokorrean:

- Eskaintzen diren materialak eta gidak oso egokiak dira, eta ez nion IEZri kontsultarik egin behar izan.
- Aplikazioa ez da oso intuitiboa.
- IKD metodologia, programazioa eta jarduera oso positiboak dira, baina ez dira errealitatera egokitzen: ikasle-kopurua, gelako baliabideak, beste zeregin batzuk (kudeaketa, ikerketa ...). Lan polita da, baina aplikatzen zaila.
- Lortutako guztizko puntuazioaren ia% 50 autotxostenetan eta ikaskuntza-atazen deskribapenean oinarritzen da. Ez da errealista pentsatzea irakasleen kalitatea ebaluatzeko modu objektibo bat dela.
- • Ikastetxe bakoitzaren berezitasunak direla eta, oso zaila da analisiaren dimentsioen arteko orekari eustea.
- • Zalantzarria da eredu bakar baten arabera ebaluatu ahal izatea, kanpotik eta zer irakasten den jakin gabe, irakasgai asko, eta horien artean alde handiak daude.
- • Ebaluazio-protokoloan azaltzen diren puntuazio-irizpideak ulertzeko zailak dira.

DOCENTIAZ programaren karakterea:

- Irakaskuntza-ebaluazio horrek nahitaezkoa izan beharko luke, eta bosturtekoekin lotutako soldata-osagarriak ebaluatzeko erreferentzia-esparru gisa.

Ondoriozko adierazlea (0. Dimentsioa):

- Ez da behar bezala azaltzen noiz aplikatu behar den zuzenketa-faktorea (0 dimentsioa) eta, bereziki, ea foma indibidualaren dimentsio bakoitzari aplikatu dakiokeen edo soilik azken puntuazioari aplikatu dakiokeen.
- Kontuan hartu beharko litzateke irakasgaiaren izaera (nahitaezkoa/aukerakoa) emaitzak baloratzean.
- "EDRegular-PDA ertainari buruzko Irakasle Irakaskuntzaren Enkarguaren ehunekoan", agian, ikastaroen aniztasuna hartu beharko litzateke kontuan.

Ikaslearen gidak (1. Dimentsioa):

- Ez dago bermatuta irakasleek ematen duten ikaslearen gida ikasgaiaren benetan erabiltzen eta ikasleei ematen dieten dokumentua denik.

Arrakasta tasak eta ikaslearen duten iritzia (2. Dimentsioa):

- Ez da zuzena gaitzaren ehunekoak notan eragina izatea, inkestek kontuan hartzen baitute ikaslearen balorazioa. Hala, lehen mailako irakasleak bakarrik zigortzen dituzte, inkesta onak izan arren.
- Amaierako kalifikazioa batera egin liteke, irakaskuntza-praktikaren alderdiak portzentaje itxiekin zatitu gabe. Edo, gutxienez, 2. dimentsioak pisu handiagoa izatea 3. dimentsioaren aldean, 2. dimentsioak irakaskuntza-jardunaren emaitzak islatzen baititu ikaslearen ikuspegitik, eta azken hori da, hain zuzen ere, jardueraren hartzailea.

Merituak (3. Dimentsioa):

- Lanen zuzendaritzaren balorazioa birplanteatzea.
- Jarduera asko irakaskuntzaren bikaintasunean daude argi eta garbi, eta baimendutako kategorietan zehazki ez sartzeagatik, ez dira baloratzen.
- Irakaskuntza-gaiei buruz argitaratutako artikuluen balorazioari buruzko atala lagungarria izan daiteke ikerketa-eremu hori duten irakasleentzat.
- DOCENTIAZ programan ez da kontuan hartzen irakaslearen lan-kontratu mota. Hain zuzen ere, kontratu motak baldintzatzaileak izan ditzake, ezinezko bihurtuz irakasle horiek jarduera askotan parte hartzea, egiturak ez baitu hori errazten.
- Ebaluazioak ez du bereizten eta ez du kontuan hartzen esperientzia edo adina.
- Programak ez du kontuan hartzen irakasle asko alde aurretik prestatu direla, eta ez dute eskaintako ikastaro gehiago egiteko beharrik, ikastaro horietan ez baitute ezer berririk ikasiko, ezta beharra sortzen den une berean beren kabuz ikasteko gai ez diren ezer ere.
- Pisu handiegia ematen zaio "irakaslearen garapen profesionala" dimentsioari.. Irakasleek egiten duten jakintza-arloari atxikitako prestakuntza-jarduerak espezifikoak, "Eremu propioan" etengabe ikasteko prozesuan egoteko modu gisa, gehiago hartu beharko lirateke kontuan, eta hobeto baloratu. Irakaskuntzaren kalitatea ez dago soilik lotuta irakasleek alderdi pedagogiko edo didaktikoekin lotuta egiten dituzten prestakuntza-jarduerekin.

Besteak:

- Agian, emaitzak lortzen saiatzea hobetzeko puntu bat izan liteke etorkizuneko deialdiei begira, baita burokrazia gutxitzen saiatzea ere.
- DOCENTIAZ askoz ere erabakigarriagoa izan beharko litzateke ikastetxearen, graduen eta irakasleen akreditazioetan. Eta osagarriak lortzeko orduan. Eta emaitzek anonimoak izateari utzi beharko liokete.
- Inkesta honetan komeni da eremu bat jartzea 'ez dagokit' edo 'ezin dut erantzun, erantzuteko irizpiderik ez dudalako' edo antzekoa esaten duen erantzun posibleen artean.
- Programak izan duen garapena, lehen deialdietatik gaur egunera arte, oso positiboa da.
- Ebaluazioak, nahiz eta autotxostena egiten laguntzen duten adierazle batzuk egon, subjektiboa izaten jarraitzen du. Irizpideak objektiboagoak izan zitezen saiatu beharko litzateke.
- Ebaluazio baten eta etorkizuneko beste baten artean igaro beharreko 5 urteko aldia gehiegizkoa da.
- Urtean hainbat deialdi egon beharko luke, edo data aldatu urte batetik bestera.
- Agian, egokiagoa litzateke galdera horiek ebaluazio-eskaeraren ondoren egitea; izan ere, hainbeste hilabete igaro ondoren, zenbait alderdi gogora ekar baititzakegu.
- Programaren dimentsioa eta prestakuntza-proiektzioa indartu beharko liriateke. Irakaskuntzaren osteko zerbitzua, programaren indarguneak eta ahuleziak finkatu eta landu ahal izateko..